



Errenteriako  
EMAKUMEEN ETXEA  
MEMORIA

2020ko irailetik  
2021eko uztailera



Errenteriako  
Berdintasunerako  
Kontseilua  
Consejo de Igualdad  
de Errenteria

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

**Diseinua eta maketazioa:**  
Izaro Mariezkurrena Etxabe

**Argazkiak:**  
Mendi Urruzuno

**Inpresioa:**  
Graficas Diana

2022 Errenteria

# AURKIBIDEA

1. Emakumeen Etxea: zer da
2. Harrera eta Arreta
3. Zerbitzuak
4. Erabakitzeko organoak
5. Eskola Feminista
  - 5.1. Eskola Feminista: zer da
  - 5.2. Programazioa
  - 5.3. 2020-21 ikasturteko datuak
  - 5.4. Ikasleen iritziak
6. Liburutegia
7. Jarduerak eta erabilera



# EMAKUMEEN ETXEA: ZER DA



Emakumeen Etxea Errenteriako mugimendu feministaren aspaldiko aldarrikapena da.

2019ko martxoan ireki zen, herriko emakumeen, mugimendu feministaren, emakume-elkarteen, Berdintasun Kontseiluaren eta udaleko berdintasun-sailaren arteko partaidetza-prozesu baten ondoren.

Errenteriako Emakumeen Etxea emakumeen topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako gunea da, baita feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokaren erreferentzia-gunea ere.

Errenteriako Emakumeen Etxea udalerriko emakume guztientzat espazioa da baita Oarsoaldetik eta beste herri batzuetatik hurbildu nahi duten guztientzat ere.

Memoria honen helburua Emakumeen Etxean 2020ko irailetik 2021eko uztaile bitartean egin eta gertatu dena jasotzea da, Emakumeen Etxeko basteetan dagoen informaziotik abiatuta.

- **Harrera eta Arreta**
- **Hilabeteko jarduerak**
- **Zerbitzuen erabilera**
- **Erabakitze organoak**
- **Eskola feminista**

# HARRERA ETA ARRETA



Atal honetan Emakumeen Etxean artatutako emakumeen datuak jasotzen dira. Emakumeen Etxera zer eskaintzen eta egiten zen jakiteko, Etxea ezagutzeko edo/eta informazioa jasotzeko hurbildu diren eta hartatu diren emakumeen datuak jaso dira.

**82**

emakume

2020ko  
irailtik abendura

**230**

emakume

2021ko  
urtariletik uztaiera


**312**

emakume

Guztira

2020ko irailean eta 2021eko otsailean emakume gehiago hurbildu dira. Eskola Femi-nistan izena emateko epeak hilabete horietan izan zirelako. Era berean, harrera-da-tuetan pandemiaren egoeraren eragina nabari da; hau da, pandemiaren intzidentzia-tasa jaisten zenean, Etxera hurbildu diren emakumeen kopurua handiagoa izan da.

## 1. EMAKUMEEN HARRERA DATUAK 2020-21



# ZERBITZUAK

# 3



2019an Emakumeen Etxea ireki zenean bi zerbitzu eskaintzen ziren, bata laguntza psikologikorako (Norbanakoaren Jabekuntza Gunea) eta bestea aholkularitza juridikorako. 2020ko abenduan bi zerbitzuen eta eskaera kopuruen balorazioa egin ostean, 2021eko urtarrilean laguntza psikologikorako zerbitzua indartu zen, asteko ordu kopuruak bikoiztuz. Autozaintza sexual eta psikologikorako gunea izena du eta sexologian aholkularitza ere eskaintzen da.

Laguntza psikologikoko ordu kopurua handitzearen arrazoi nagusia, pandemiak gure bizitzako hainbat esparrutan izan duen eragina izan da.

Gainera, otsailean aholkularitza zerbitzu berri bat jarri zen abian, beste herrialde batzuetatik datozen emakumeen ikasketen homologazioa sustatzeko eta ibilbide profesionalen aukerak aztertzeko.

**2020:** 51 emakume, horietatik 41 berriak


**2021:** 93 emakume, horietatik 90 berriak

**2020-21:** 144 emakume, horietatik 131 berriak

144 emakumetik, 131 berriak izan dira eta 13 aurreko ikasturteko erabiltzaileak ziren.



## 2. ZERBITZUEN ERABILTZAILAK 2020-21



Zerbitzuen arabera aztertuta, 2020ko irailetik 2021eko uztailera bitartean 144 emakume artatu dira, baina horietatik 26 emakume bi edo hiru zerbitzutan egon dira


Orientabide juridikoa: **83**

Norbanakoaren ahalduntze Gunea: **44**


Autozaintza sexual eta psikologikorako gunea: **26**

Ikasketen homologaziorako aholkularitza: **17**


## 3. ZERBITZUEN ERABILTZAILAK ETA ZITA KOPURUA 2020-21



#### 4. ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ERROLDAREN HERRIA 2020-21




#### 5. ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN JAIOTERRIA 2020-21






## 6. ZERBITZUEN ERABILTZAILEEK KONTSULTATUTAKO GAIAK 2020-21



Beraz, artatutako 144 emakumeetatik 71 emakumek jo dute Emakumeen Etxeko zerbitzuetara indarkeria matxistagatik, hau da, %49,3k.


## 7. NONDIK DERIBATU DITUZTE ZERBITZUEN ERABILTZAILEAK 2020-21



Autozaintza sexual eta psikologikorako gunea 14 urtetik gorako emakumei euskaraz eskaintzen zaien zerbitzu bakarra izan da; izan ere, gainerako zerbitzuak 16 urtetik gorako emakumeentzat dira eta gaztelaniaz eskaintzen dira.


Autozaintza espazioa erabili duten 26 emakumeetatik 11 gazteak dira, hau da, 14 eta 25 urte bitartekoak. Emakume gazteen % 42,3 horietatik 3k euskaraz erabili dute zerbitzua, eta 8k gaztelaniaz.

## 8. AUTOZAINNTZA GUNEAREN ERABILITZAILE GAZTEENAK 2021




Autozaintza gunea hizkuntza-erabileraren arabera aztertuz gero, 8 emakumek euskaraz jaso dute zerbitzua, %30,8k, eta 18k gaztelaraz, %69,2k.

## 9. AUTOZAINNTZA GUNEA HIZKUNTZAREN ARABERA 2021



## 10. ZERBITZUEN ERABILTZAILA ADIN-TARTEAK 2020-21



**144**  
emakume  
GUZTIRA

**43,26**  
bataz besteko  
adina

# ERABAKITZEKO ORGANOAK



Emakumeen Etxea sortu zenetik 30 bat emakumek hartzen dute parte erabakitze organoen bileretan.

Emakumeen Etxearen funtzionamendua, programazioa, zerbitzuez eta erabileraz hartzen diren erabakiak Batzarrean, Koordinazio Organoan eta martxan dauden lantaldeetan adosten dira.

Ikasturte honetan, pandemiak eragin zuzena izan du parte hartzeko egituretan; izan ere, bileren kopurua murriztu egin da eta horietan parte hartu duten emakumeen kopurua ere jeitsi egin da.

Egoera normal batean batzarra urtean 3/4 aldiz biltzen bazen ere, ikasturte honetan bi aldiz bildu da; eta koordinazio-organoa 3 aldiz.

Lantaldeen kasuan, aktiboenak programazioa antolatzekeo lantaldea, gazteena eta memoria lantaldea izan dira. Batzar bat eta koordinazio organoaren bilera bat birtualki antolatu dira, hau da, telematikoki eta aurrez aurre joateko aukera ere eman da.

Nabarmendu behar da Jane Gamon Hirigintza taldearen sorrera, 2020ko udazkenean, hirigintza eta feminismoa lantzeko helburuarekin sortutako taldea dena.

Talde honek bultzatuta, Errenteriako emakumeen presentzia aldarrikatzeko eta kaleratzeko mural feminista kolaboratibo bat diseinatu eta margotu zen, parte hartze prozesu baten bidez. Bai prozesuko eta bai antolatutako tailerretako eta inaugurazioko parte hartzearen datuak 6. atalean azaltzen dira.

## 2020-21 ikasturteko bilerak

## Birtualak

Batzarra	2	1
Koordinazio organoa	3	1
Lantaldeen bilerak	4	0
Jane Gamon Hirigintza taldea	4	0

Guztira

13



*Emakumeen Etxeko Batzarra*

# ESKOLA FEMINISTA



Eskola Feminista 2014an jarri zen martxan lehenengo aldiz Errenteriako udal eraikin eta emakume elkarte ezberdinetan, herriko emakumeen ahalduntze prozesuak bultzatzeko asmoz.

2019ko martxoan Emakumeen Etxeara eraman zen, horrela jaso baitzen Etxea definitzeko parte hartze prozesuan.

Eskola Feministak ikasturtearen logika jarraitzen du, baina memoria honetan 2020ko irailetik 2021eko uztaileira arteko datuak bildu dira, bai udazkeneko programazioa bai udaberrikoa.

## 5.1. ESKOLA FEMINISTA: ZER DA

Hausnarketarako, autonomia indartzeko, sareak sortzeko, emakumeak beraien eskubi-deen jabe egiteko, pertsonalki eta kolektiboki eraldaketa sozialean parte hartzeko, bizitzari aurre egiteko indarra eta konfiantza izateko... espazioa izan nahi du Eskola Feministak.

Azken buruan, eskolaren asmoa da emakumeen partaidetza eta ahalduntzea sendotzea eta gizarte justu, anitz eta osoago bat lortzeko bidean urratsak bultzatzea.

Emakumeontzat topaketa, prestakuntza eta hausnarketa gunea da.

Hauek dira Eskola Feministaren lau ardatzak:

1. feminismoak
2. kultura berriro definitzen
3. autonomia
4. gorputza, sexualitatea eta osasuna

## 5.2. PROGRAMAZIOA

Ikastaroak, tailerrak eta jabekuntza talde guztiak doakoak dira eta Emakumeen Etxean ematen dira.

Hiru motakoak dira, iraupen edo ezaugarrien arabera:

- **Ikastaroak:** ikasturte osokoak.
- **Tailerrak:** motzagoak eta puntualak.
- **Jabekuntza taldeak:** ikasturte osokoak.

2021eko udaberrian lehenengo aldiz neska gazteei zuzendutako espazio bat sortu zen, Neska Gazteen Txokoa 16 urtetik 25 urterako neska guztiei zuzendutako “espazio ahal-duntzailea” da, ikuspegi feministatik tailerrak eta baliabideak eskaintzea helburu duena. 2020-21 ikasturtean hiru tailer antolatu ziren, denak euskaraz.

Pandemiaren edukierak %60 edo %50a izan direla kontuan hartuta, ikastaroen plaza kopurua murriztu da eta tailer bat telematikoki eman zen irakasleak itxiera perimetralean egoteagatik. Gainera, pandemiaren neurriengatik, emakume batzuek ezin zuten Errenteriarra etorri beste herri batzuetan erroldatuta zeudelako eta mugakideak ez izateagatik.

Ikasturte honetan

**214**

plaza eskaini dira

**17**

jardueretan

### 2020-21 IKASTURTEKO ESKAINTZA

#### IKASTAROAK:

- Emakumeen autoritatea. Emakumeak aurrera
- Munduko emakumeen literatura
- Norberak bere gela: curriculum ezkutuak

#### TAILERRAK:

- Autodefentsa feminista\*
- Tuppersex subbersivo: feminismoa, kontsumo arduratsua eta plazerrak.\*\*
- Berdintasunetik maitatzea
- Nola izango zen erreneria emakumeek diseinatu izan balute?
- Labirintoan barne
- Gure praktikak eta jakintzak dekolonizatzen ditut
- Autodefentsa feminista tailerra (hastapena)

#### JABEKUNTZA TALDEAK:

- Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen gunea
- Emakume zaintzaileentzako topagunea
- Gorputzaren kontzientzia eta erlaxazio gunea
- Batukada feminista

#### NESKA GAZTEEN TXOKOA:

- Sexualitateari buruzko hausnarketa
- Hilerokoa gureganatzen
- Zer da ederra izatea

*\*Tailer hau bertan behera geratu zen ez zirelako gutxienez 7 emakume apuntatu.*

*\*\*Tailer hau telematikoki eman zen irakasleen lurraldea “itxiera perimetralean” egoteatik.*


### 5.3. 2020-21 IKASTURTEAREN DATUAK

Guztira 256 izen-emate, 214 plaza eskaini dira, baina tailer bat bertan behera geratu zenez, guztira 205 plaza osatu dira, 130 emakumek bete dituztenak. Horietako batzuk ikastaro bat baino gehiagotan aritu dira.

Adina:

130 ikasletik, erdiak baino gehiagok (67 emakumek), 56 urte baino gehiago dituzte. Gazteak ia %17a dira (22 gazte) eta 46-55 urte bitartean dauden emakumek %15,4a dira.

#### 11. ESKOLA FEMINISTAREN IKASLEEN ADIN-TARTEA 2020-21




Jaioterria:

Ikasleen %15.5a atzeritik etorritakoak dira (20 emakume)

- 5 Afrikatik: 3 emakume Marokotik, 1 Sahararik eta 1 Angolatik.
- 14 Amerikatik: 9 Erdialdeko Ameriketatik etorritakoak dira (Bolivia, Nikaragua, Kolonbia, Ekuador, Honduras, Mexiko eta Perutik) eta gainerakoen artean 2 Argentinatik, 2 Brasiletik eta 1 Venezuelatik.
- 1 Asiatik: : 1 Pakistanetik.

#### 12. ESKOLA FEMINISTAREN IKASLEEN JAIOTERRIA 2020-21






**Errolda:**

Ikasleen artean, 102 emakume Erreterian daude erroldatuta, 12 Oarsoaldeko beste herrietan eta 16 inguruko herrietan.


### 13. **ESKOLA FEMINISTAREN IKASLEEN ERROLDAREN HERRIA 2020-21**



### Elkarteetan parte hartzea:

130 ikasleetatik, 34 emakumek mugimendu sozialetan parte hartzen dute, hau da, %25ak.

## 14. ESKOLA FEMINISTAREN IKASLEEN ELKARTEETAN PARTE HARTZEA 2020-21



Eta hauek dira emakumeak kide diren elkarteak:

· Auzoetako emakumeen Elkarteak	8
· Memorandra	3
· Oreretako Asanblada feminista	1
· Zirika Taldea	2
· Amalatz Talde feminista	3
· Donostiako Emakumeen Etxearen Elkarte	2
· LGTBI Mahaia	1
· AMHER	1
· SOS Arrazakeria	2
· AMPA Egiluze	1
· A.A.V.V Oleta y Distrito de Donosti	1
· AAVV Arditurri	1
· Beti-Bizkor jubilatuen Elkarte	1
· Agustinetako jubilatuen Elkarte	1
· OARSO arte kultura	1
· Renacer	1
· AGIFES	1
· ASPEGI	1
· AGIPASE	1
· AECC	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>34</b>

## 5.4. IKASLEEN IRITZIAK

2020-21eko ikastaro eta tailerren ebaluazio-galdetegiak paperean edo email bidez banatu ziren.


115 erantzun lortu ziren, nahiz eta 205\* plaza izan, hau da, %57ak erantzun du. Beraz, orain aztertzen diren datuak ikasturtean zehar ikastaro, tailer edo jabekuntza taldeetan parte hartzen ari ziren emakumeen erantzunak dira.

Ebaluaketak erantzun dituztenen adina:


<b>16-25:</b>	<b>32 ikasle</b>	<b>(%27,8)</b>
<b>26-35:</b>	<b>4 ikasle</b>	<b>(% 3,5)</b>
<b>36-45:</b>	<b>9 ikasle</b>	<b>(%7,8)</b>
<b>46-55:</b>	<b>9 ikasle</b>	<b>(%7,8)</b>
<b>56-65:</b>	<b>30 ikasle</b>	<b>(%26,1)</b>
<b>66-75:</b>	<b>29 ikasle</b>	<b>(%25,2)</b>
<b>&gt;75:</b>	<b>2 ikasle</b>	<b>(%1,7)</b>

*\*Kontuan hartu behar da ikasturtean zehar bajak gertatzen direla eta ikasle guztiek ez dituztela ikastaroak amaitzen.*

Eskola Feminista 2014an jarri zen martxan, beraz, jakiteko aurtengo ikasletatik zenbat ziren berriak , aurreko ikasturteetan Eskola Feministan parte hartu zuten galdetzen zitzaien:




## 15. LEHENAGO HARTU AL DUZU PARTE ESKOLA FEMINISTAN?




Eskola Feministaren ikasleei galdetu diegunean Eskola Feministan hasi baino lehen feminismoa ezagutzen zuten, %12,6ak erantzun du ezetz. Bestalde, Eskola Feministatik pasa eta gero ea zure burua feministatzat daukazun galdetzean %4,6ak erantzun du ezetz. Beraz, 8 puntutan igo da feministak sentitzen diren emakumeen kopurua.

## 16. **ESKOLA FEMINISTAN HASI AURRETIK FEMINISMOA EZAGUTZEN AL ZENUEN? 111 erantzun**



## 17. **ZURE BURUA FEMINISTATZAT DAUKAZU? 108 erantzun**



Eskola Feministako ikasleei galdetu diegu ea zergatik apuntatu diren eta 14 erantzunen artean nahi zituztenak aukera zitzaketen; honako hauek izan dira gehien aukeratu dituzten erantzunak:

Nire garapen pertsonala hobetzeko:	<b>% 84,5</b>
Ikuspegi feminista batetik prestakuntza jasotzeko:	<b>% 74,8</b>
Emakumeen eskubideak hobeto ezagutzeko:	<b>% 62,1</b>
Beste emakume batzuk ezagutzeko:	<b>% 61,2</b>
Erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izateko:	<b>% 55,3</b>
Gai jakin bati buruz gehiago jakiteko:	<b>% 60,2</b>
Nire autoestima hobetzeko:	<b>% 55,3</b>

## 18. ZERGATIK APUNTATU ZARA? 103 erantzun



## NOLA SENTITU ZARA ESKOLA FEMINISTAN? ZERTAN LAGUNDU DIZU?

**“ASKE ETA GUSTORA.  
NIRE IDEIAK FINKATZEKO  
ETA BERRIAK DIRENAK  
BARNERATZEN JOATEKO  
LAGUNDU DIT”**

“OSO GUSTURA”

“ más empoderada ”

**“Errefugio  
moduko  
lekua”**

“Ondo sentitzen naiz, nire etxean bezala,  
conocimiento y empoderamiento”

“ MUY CÓMODA ”

**“ACOGIDA”**

“ Mayor conocimiento.  
Escuchar diferentes puntos de vista ”

**“motivada,  
enérgica”**

**“UN RESPIRO,  
ESKERRIK ASKO! ”**

“Babestua arazo pertsonaletan,  
besteengandik ulertua eta besteei ulertzen  
eta enpatizatu dut nolabait”

**“ Boteretsu.  
Nire burua hobeto  
ezagutzen erakutsi dit ”**

“Muy a gusto”

**“libre. Ikasteko eta nire burua  
hobeto ezagutzeko lagungarria”**

## PANDEMIA GARAI HONETAN, ZER SUPOSATZEN DU ZURETZAT EMAKUMEEN ETXEA IZATEAK?

**“Una maravilla”**

*“Una forma de dejar de pensar en la situación en la que estamos viviendo ”*

*“Ha sido gratificante y un alivio”*

**“más conocimientos sobre feminismo”**

**“Mejorando mis conocimientos feministas”**

**“INDARRA”**

**“IMPRESINDIBLE”**

**“Un respiro”**

*“ Pues un acierto mantener la actividad dado el panorama actual y haber llegado a fin de curso sin cancelarse el curso ”*

**“Libertad y positividad”**

“Bihotza estu momentu askotan identifikatzea edukitzen ditudan egoera matxista ezberdinengatik eta pentsatzen horri aurre nola egin, etab. Oso aberasgarria neretzako”

**“feminismo”**

**“Ondo. Hausnartzeko”**

**“Un buen recurso”**

*“ Idea ona, ikusita nola dagoen kale giroa, ba aurkitu dut toki eta giro eder bat aisialdiarako ”*

“Babes eta lasaitasun leku bat”

*“Un desahogo poder seguir relacionándonos, compartir opiniones”*

**“Hazkunde pertsonala”**

# LIBURUTEGIA


# 6



Emakumeen Etxeak liburutegi feminista sortu zuen 2019an, eduki feministadun edo emakumeek sortutako liburu, aldizkari, pelikulak eta dokumentalak eskainiz. Gehienak donazioen bidez iritsitakoak dira.

Guztira, 180 liburu ditu, aldizkari baten 6 ale eta 82 bideo. Gainera, etxean bertan kontsultatzeko edo irakurtzeko zenbat liburu, gida eta material ere baditu.

Ematen diren datuak 2021eko urtarriletik uztailerakoak dira. 7 hilabete horietan, 13 liburu eta 10 bideo mailegatu dira.





# JARDUERAK ETA ERABILERA



Atal honen helburua Emakumeen Etxeak antolatu dituen jardueren eta ekintzen berri ematea da. Jarduerak Emakumeen Etxeko helburuak bultzatzeko antolatu dira eta ondoko hauek dira:

- Emakumeen topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako
- Kontzientzia feminista garatzeko eta aktibismo soziopolitikoaren lantzeko
- Emakumeen arteko harremanak, sareak eta lankidetzak sustatzeko
- Indarkeriaren kontra aktiboki lan egin nahi dutenei baliabideak eskaintzeko


Antolatu diren ekintzak eragile ezberdinek bultzatu dituzte: Emakumeen Etxeko Batzararak, programazio lantaldeak, mugimendu feministak, berdintasun sailak edota, elkarte edo eragile sozialek.

Hauek dira 2020-21 ikasturte honetan Emakumeen Etxearen hilabeteko jarduerak antolatzen parte hartu duten elkarte eta gizarte-eragileak, edo beren bilera edo ekintzak bertan egin dituztenak:

- Oreretako Asanblada Feminista
- Eskualdeko feministen batzarra
- Jane Gamon Hirigintza Taldea
- Garaipen Elkartea
- Bilgune Feminista
- Zirika neska gazteen taldea
- Bidez Bide elkartea: Ikasi kanpaina
- SOS Arrazakeriako Etxeko langileen taldea
- SOS Arrazakeria
- Koop Denontzat
- Oneka emakume pentsiodunen Euskal Herriko Plataforma
- Mara-Mara Elkartea

2020ko irailetik 2021eko uztaiera 23 jarduera antolatu dira eta asistentziaren %90,6a emakumeak izan dira, hau da, 472 emakume eta 48 gizon (%9,4):

## 19. JARDUEREN ASISTENTZIA 2020KO IRAILETIK 2021EKO UZTAILERA



*\*Hemendik aurrera emakumeen asistentziari buruzko datuak soilik sartzen dira, gizonen asistentzia baxua delako.*

Pandemiaren eraginagatik Emakumeen Etxeak antolatu dituen jardueren kopurua murriztua egin da.

2020eko irailean hasi ziren berriz ere jarduerak antolatzen, neurri guztiak kontuan hartuta.

Egoera eta beharren arabera, jarduera batzuk telematikoki edo birtualki antolatu ziren (beti aurrez aurre ere etortzeko aukera emanda, batez ere arrakala teknologikoa saihesteko) eta beste batzuk, aurrez aurre.

2020ko irailetik abendura 5 jarduera antolatu ziren, horietatik % 40a aurrez aurre eta %60 birtualki.

2021eko urtarriletik uztaiera: 18 jardueratik, % 66,7a aurrez aurre eta % 33,3a birtualki.

## 20. JARDUEREN KOPURUA FORMATUAREN ARABERA

IKASTURTEA	KOPURUA	BIRTUALKI	AURREZ AURRE	% AURREZ AURRE
2020	5	3	2	% 40
2021	18	6	12	% 66,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>23</b>			

Eta asistentzia begiratzen badugu, aurrez aurre etorri direnak %79a izan dira.

## 21. JARDUERAREN FORMATUAREN ARABERAKO ASISTENTZIA

IKASTURTEA	BIRTUALKI	AURREZ AURRE	% AURREZ AURRE	GUZTIRA
2020	36	69	% 65,7	105
2021	71	334	% 82,5	405
<b>GUZTIRA</b>	<b>107</b>	<b>403</b>	<b>% 79</b>	<b>510</b>

# 2020KO JARDUERAK

## IRA ILA

2020/09/11

Bisita gidatua: nerabeen taldea

Sexualitatea eta tratu oneko harremanak

6

2020/09/17

Eskola Feministaren irekiera

jardunaldia: (bi pase)

30

Emakumeak

2020/11/26

Indarkeria: 1. mahai-ingurua: Akonpainamendua

22

## AZA ROA

Emakumeak

2020/12/16

Berdintasun kontseilu irekia Emakumeen Etxean

10

2020/12/01

Indarkeria: 2. mahai-ingurua:

Memoria eta Erreparazioa

31

## ABEN DUA

**GUZTIRA**

**99**



*Eskola Feministaren aurkezpena*



*Indarkeria: 1. mahai ingurua: Akompainamentua*



*Indarkeria: 2. mahai ingurua: Memoria eta Erreparazioa*

## 2021KO JARDUERAK

### URTA RRILA


	Emakumeak
2021/01/13 Udaltzain berriei bisita gidatua eta aurkezpen saioa	0
-	
2021/01/19 Indarkeria: 3. mahai-ingurua: Koordinazioa	13
-	
2021/01/27 Autozaintza zerbitzuaren aurkezpena Zirika taldekoei	10

### OTS AILA


	Emakumeak
2021/02/25 Liburuaren aurkezpena: Zaida Muxí. Las mujeres y la ciudad	26

### MAR TXOA

	Emakumeak
2021/03/03 Mentoretza Soziala: SOS Arrazakeria	19
-	
2021/03/13 Mariasun Landa sarien banaketa	19
-	
2021/03/16 Bisita gidatua: Lau Haizetara elkarte	2
-	
Koop Denontzat: Generoa, migrazioa eta zainketen krisia. Zaintzeko elkar laguntzen gara?	16
-	
2021/03/18 Emakumeen Etxeko 2019-20 Memoria aurkezteko prentsaurrekoa	11



*Indarkeria: 3. mahai ingurua: Koordinazioa*



*Zaida Muxí. Emakumeak eta hiria*



*Mentoretza Soziala. SOS Arrazakeria*



*Mariasun Landa sari banaketa*



*Generoa, migrazioa eta zainketa krisia  
Zaintzeko elkar laguntzen gara?*

## EKA INA

	Emakumeak
2021/06/09 Emakumeen etxeko batzarra (topaketa birtuala)	20
2021/06/05 1. Solasaldia GARAIPEN	83
2021/06/16 Berdintasun kontseilu irekia Emakumeen Etxean: Zaintzak saretzen	8
2021/06/24 ONEKA plataforma: Emakumeak eta pentsioak	14
2021/06/28 Bisita gidatua: Cristobal Gamoneko irakasleei	6
2021/06/29 Muralaren 1. tailerra	12

## UZTA ILA

	Emakumeak
2021/07/01 Dokuforuma: Florecica Niessenen	60
2021/07/06 Muralaren tailerra 2. saioa Muralaren margoketa kolaboratiboa, uztailean, larunbatero	14
<b>GUZTIRA</b>	<b>363</b>
<b>GUZTIRA 2020-21</b>	<b>462</b>





1. Solasaldia: Garaipen



Zaintzak saretzen: Berdintasun kontseilu irekia



Emakumeak eta pentsioak





*Muralaren prestaketarako 1. tailerra*



*Floreica dokuforum-a*



*Floreica dokuforum-a*



*Muralaren prestaketarako 2. tailerra*